



## OHARRA

### etxe-aldiaren bukaera datorrela eta

Espainiako Gotzain Batzarren Batzorde Betearazleak honako hau adierazi nahi dio Jainkoaren Herriari eta Espainiako gizarte osoari:

1. Poza hartzen eta eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari, kontrolatu ahal izan dutelako eta, arreta eta kontu handiz izanik ere, elkarbizitzan ohiko jardueri berrekin ahal izan diegulako. Gure senide maiteen heriotzak eta, halaber, osasun-arloan, gizartean, arlo ekonomikoan eta lan-arloan izandako arazo larriek ekarri diguten atsekabe- eta sufrimendu-aldi honen ondoren, aurre egin beharra diogu egora honi itxaropenez, elkartasuna sustatuz eta karitatez jokatzerara deituak garela sentituz, bai norbera, bai arlo politikoa, bai arlo sozialean.
2. Bat egiten dugu, pandemia honen ondorioz hil direnen milaka familiaren saminarekin. Haientzat betiko atsedena eskatuz otoitz egin dugu, baita haien ahaide eta adiskideen kontsolamendua eskatuz ere. Aditzera eman nahi dugu datozen asteetan hileta-mezak ospatu nahi genituzkeela, parrokia bakoitzean eska dezaketenekin. Gerora, elizbarruti-mailako ospakizuna ere egingo genuke, Kristo Piztuak eskaintzen digun itxaropena agertuz.
3. Berriz ere eskertu nahi dugu, osasun-zerbitzuetako hainbeste pertsonak bere burua bihotz-zabaltasunez eskainiz egin duen lana eta, orobat, gure gizartean eguneroko bizitza ahalbideratu duen beste langile askoren ahalegina. Era berezia aipatu nahi dugu apaizek, pertsona sagaratuek eta laikoek aste hauetan erakutsi duten prestasuna eta egin duten zerbitzua.
4. Bultzatzen jarraituko dugu, krisialdi ekonomiko eta sozialak erasan dituen pertsonentzat Caritas-ek eta beste eliz erakunde batzuek ari duten lana, pandemiak eragindako ondorioak arintzeko. Elizaren Irakaspen Sozialaren printzipioak eskaintzen ditugu, baita bizitza sozial eta ekonomikoa berreraikitzen katolikoek, Frantzisko aita santuaren “pizteko plana” delakoari jarraiki, ari duten lana.
5. Zenbait astetan gure fedea elizetan eta parrokietako aretoetan elkarrekin adierazi gabe egon ondoren, ohiko eliz bizitza berreskuratu nahi genuke ezarian-ezarian. Trantsizio-aldi honetan, igandeko Mezatan parte hartzeko agindua dispentsatzeko erabakia mantentzen dugu, eta arrisku handiena duten pertsonen, adinekoei eta gaixo daudenei, esan nahi genieke pentsatzeko etxean gelditzea eta ospakizunak komunikabideetan ikustea. Apaizei eta lankideei hau eskatzen diegu: egin ditzatela ahaleginak ospakizunak eta otoitzak errazteko, antolamendurako eta garbitasunerako neurriak gogoan izanik. Ospakizunetara nahiz nork bere otoitza egitera elizara joango diren pertsonak izan ditzatela kontuan, ohar honi erantsirik doazen arauak eta gomendioak, osasun-agintariek emango dituzten legeen arabera.

6. Hertsatuki eskatzen diegu administrazio publiko ezberdinetako agintariei, alderdi politikoei eta enpresa-erakundeetakoei nahiz sindikatuetakoei, gainerako asoziazio eta erakundeetakoei eta hiritar guztiei saia daitezela elkarrekin adostasunean eta lankidetzan jarduten, denen onerako. Denok gaude bizikidetzan erantzukizunez jokatzera deituak, ahal den heinean gaitzaren zabaltzea ekiditeko eta behartsuei laguntzeko, baita pandemia honen ondorioak nozituko dituztenei ere.

7. Bat egiten dugu denen otoitzarekin, senidetasun sendotuz. Jaunaren grazia eta Espiritu Santuaren argia eskatzen dugu, egoera honetan Jainkoak esan nahi digunari antzeman diezaiozun. Ikertzaileen alde eskatzen dugu bereziki, pandemia honen aurkako erremedioa lortu dezaten. Espainiaren zaindari den Sortzez Garbiaren babesean jartzen gara.

Madril, 2020ko apirilaren 29